

LEA-ARTIBAI ESKUALDEKO URRIKO AZOKA NAGUSIRAKO OINARRIAK

HELBURUA

Lea Artibaiko Landagarapen Alkartea osatzen duten alde ezberdinek, eta Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarría, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar eta, elkarte kanpoko, Mallabiko udalek beren beregi, argi dute lehen sektorearen garrantzia orokorrean eta gure eskualdean bereziki. Horrela, garrantzi berezia hartzen dute berau sustatzeko ekintzek zein azokek, hauek duten garrantziagatik ekonomiarentzat, nekazaritza dibertsitatearentzat, ingurumenarekiko errespetuarentzat eta kontsumo jasagarriarentzat.

Landa eremuaren garapena helburu izanik, landagunea zaintzea, landa eremuetan jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea eta biztanleen ongizate-maila hobetzea helburu dira. Horretarako, ustategi txikien bidez produkzio tradizionalaren eredua mantentzea eta berau herritarrengana hurbiltzeko ekimenak aurrera eramatea ezinbestekoak dira.

Azokak, zein bestelako ekimenak, funtsezko dira sektore honen bideragarritasuna bermatzeko. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topaketa eta salmenta gune bat sor dadin, azken hauek, bertan ekoiztutako elikagaien balioaz jabetzeko eta hauen kontsumoa handitzeko kontsumitzaileen ohituretan eragiteko.

Aldi berean, abeltzaintza indartzeko ere baliagarri izango da azoka hau eta bertan erakusgai izango dira eskualdeko eta Mallabiko animaliak zein euskal arrazak.

Urriko azoka, eskualdeko azoka nagusia izanik, bertan batzen den jendetza eta sortzen den jai giroari ahalik eta erantzun egokiena emateko asmoz, kontutan izango da elikaduraren balio katea osotasunean txosnak jartzeko aukera barne hartuz.

Landa eremuaren garapenerako garrantzizkoak diren eta landa eremuarekin lotura estua duten bestelako ekimen, hornitzaile zein proiektuk ere euren txokoa izango dute azokan.

APLIKATZEKO EREMUA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak bere 17. artikuluan dioenez, udalek hainbat esparrutan eskuduntza propioak erabili ahal izango dituzte, eta horietako batzuk harreman zuzena dute udalen toki publikoetan jarduerak egiteko kontuan hartu beharreko antolatze lanekin. Horien artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Kontuan izango da baita ere, 51/2024 DEKRETUA, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.

Horretaz, Lea Artibaiko Landagarapenak, 2026ko urriaren 10an Markina-Xemeinen antolatuko duen nekazaritza eta ekoizpen azokarako aplikatuko da. Azokaren ordutegia 10:00etatik 15:00ak arte izango da.

BAIMENTZEN DIREN PRODUKTU ETA POSTUAK

Produktu mota	Baimendutako kopurua / mahai kopurua
Ortuariak, frutak	6 / 18
Esneki eta gaztak	5 / 8
Ogia eta gozoak	6 / 12
Haragia eta eratorriak	5 / 6
Eztia	2 / 2
Kontserbak eta ahatekiak	7 / 7
Edariak	5 / 7
Beste ekimen batzuk eta berritzaileak	2 / 2

(*) Postuen kopurua aldatu ahal izango da, udal erakundeetako zehaztasun teknikoen arabera zein eskarien balorazio ostean.

Lea Artibaiko Landagarapenak 64 postu jarriko ditu, BBKk utzitako etxolak, eta eurentan salmenta egiteko, aurrez eskaria egin ostean, Lea Artibaiko Landagarapenaren baimena duenak izango du aukera. Baimendutako ekoizle edo eta partehartzaile bakoitzari etxola bat edo gehiago esleitu ahal izango zaizkio eta 38-43 parte hartzaileri baimena ematea aurreikusten da, hala ere, banaketa hau Lea Artibaiko Landagarapenaren esku gelditzen da, eta behin eskari guztiak aztertu ostean erabakiko da.

Era berean, produktu motaren arabera baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua aurreikusitakotik beherakoa bada, antolakuntzak eskubidea izango du beste ataletan emandako postuen kopurua handitzeko edo beste produktu tipologia bat barneratzeko edo ezarritako baldintzak betetzen dituzten baina eskaera ezarritako epean aurkeztu ez duten beste produktore eta/edo egile batzuk gonbidatu ahal izateko.

Eskualdeko edo Mallabiko ortuaridunek 120 eurotako dieta jasoko dute erabiltzen duten etxola bakoitzeko beti ere, guztira, gutxienez 6 produktu ezberdin aurkezten badituzte eta etxolak produktuz ondo hornituta egon behar dira. Gehienez 3 etxola erabili ahal izango dituzte. Erakusleak bere ustiatetikiko produktuak bakarrik erakutsi eta saldu ahal izango ditu.

Honetaz gain, Lea Artibai eskualdeko ekoizleen artean 3 sari emango dira, horietako bi fruta eta ortuari postuentzat emango dira eta beste bat eskualdeko merezimendua aitortzen duenarentzat.

- Fruta eta ortuari lehen saria: 200€
- Fruta eta ortuari bigarren saria: 150€
- Eskualdeko merezimenduaren aipamena

Sari hauen irabazleak epaimahaiak erabakiko du salmentan dituzten produktu kantitatea, produktuen aurkezpena, prezioen informazioa eta apaintze mailaren arabera.

BBKko postuak erabiliz azokan parte hartzen dutenek ez dute lurraren erabileraren truke inolako tasarik ordaindu beharko.

Oinarrietan agertzen diren bestelako baldintzez gain, azokan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango dira:

- a. Baimenduta egongo diren produktuak izango dira osasuneko arriskurik sortzen ez dutenak, berezko autoritateen iritziz, eta noizbehinkako kaleko salmentarako indarrean dauden araudiak debekatzen ez dituztenak.
- b. 51/2024 DEKRETUA, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia_mercados_locales/eu_def/adjuntos/GUIA_mercados_locales_eu.pdf
- c. Legez eta araututa dauden bestelako baldintza guztiak bete beharko dira.
- d. Postuen kokapena antolatzaileak erabakiko du produktu mota, okupatzen duten espazioa eta momentuko egoera eta baldintzen arabera, beti ere aukeren berdintasuneko irizpidea kontuan hartuko delarik.

Guzti hauetaz gain, ondorengo kasuetan kontuan izan beharko dira:

TXOSNAK

Urriko azoka nagusian sortzen den jai giroari erantzuteko asmoz, 3 txosna kokatzea aurreikusten da, postuen kopurua aldatu ahal izango da, udal erakundeetako edo bestelako erakunderen bateko zehaztasun teknikoen arabera. Txosnek 500 euro ordaindu behar izango dituzte kokatu ahal izatearen truke, ordainketa azoka eguna baino lehen egin beharko da.

Txosna hauetan taloa txorizoarekin edo bestelakoekin jan ahal izango da, eta egun horretan bisitariak animatzeko eta erakartzeko balioko dute. Txosna hauen esleipena oinarri hauetan agertzen diren publizitate, konkurrentzia, berdintasun eta diskriminazio ezari dagozkion irizpide berdinak jarraituz izango da eta behin esleitura kokapena antolatzaileek erabakiko dute.

Elikagai guztiak enpresa baimenduetakoak izango dira, RGSEAA n edo REACAV n edo Lehen Sektoreko Produkzio Erregistroetan inskribatuta egongo dira, eta behar bezala identifikatuta egongo dira beren jatorria justifikatzen duten etiketekin, fakturekin edo albaranekin.

Gainera, txosna baten lagapen hartzailea izateko, baldintza hauek bete beharko dira eta eskaeran jasoko dira:

- Txosnen egiturak agintaritza eskudunak behar bezala homologatutakoak izango dira.
- Txosnetako pertsonal guztiak elikagaiak manipulatzeko agiria izan beharko du.
- Harrasketara konektatuta egongo den txorrotako ura izango dute, baita garbitzeko tresnak ere (xaboia, paperezko toallak eta azazkaletarako eskuila).
- Elikagaiak manipulatzeko azalera egokiak izango dituzte. Lauak, iragazgaitzak, inerteak, erraz garbitzekoak izango dira azalera horiek (formika, melamina, altzairu herdoilgaitza, etab.) eta zerbitzatzeko eta kobratzeko azalerekiko bereizita egongo dira.
- Txosna bakoitzak su itzaltzaile bat izango du (F klasea, 6 litro ur AFFF).

- Etiketari hotzean mantendu behar direla adierazten duten produktu guztiak hozteko ganbera, erakustoki edo bitrinetan egongo dira, etiketan adierazten den tenperaturaren, hala produktuak garraiatzean nola azokan bertan.
- Jendearentzako edalontziak eta/edo platerak izango dira.
- Biltegiratzeko elementu egokiak egongo dira; beraz, elikagaiek edo horien ontziek ez dute lurra ukituko.
- Gas eta/edo propano instalazio egokiak izango dituzte, gogor antzekoa eta sutatik edo edozein bero iturritatik 1,5 metrotik gorako gutxieneko distantzia egongo da.

BESTELAKOAK:

Landa eremurako hain garrantzitsuak diren bestelako ekimen, hornitzaile zein proiektuak euren hautagaitza aurkeztu beharko dute edo eta erakunde antolatzaileak gonbidapena luzatu ahal izango die egoki ikusten dituen entitateei. Lea Artibaiko Landagarapenak guztien arteko hautaketa egin ahal izango du behin, eskariak aztertu ostean.

Eskatzaile hauek ez dute parte hartzeagatik aparteko tasarik ordaindu beharko.

ARTISAUAK:

Artisauek ere eskari orria bete beharko dute azokan parte hartzeko. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan eta gizarte segurantzaren alta emanda egon beharko da derrigorrez eta aurkeztu egingo da. Aintzat hartuko da erregistro-errolda edo artisau txartela edukitzea.

Artisau kopurua tokiaren eta metro kopuruen arabera izango da, hala ere, gutxi gora-behera, ondoren zehazten diren tipologiaen arabera banatuko da:

Artisautza mota	Baimendutako postu kopurua
Lanbide tradizionalak	8
Motxilak, poltsak	4
Kosmetika, sendabelarrak	2
Bitxigintza, bisuteria	6
Arropak, oihalezko osagarriak	4
Makrame, paracord	3
Besteak	3

(*) Postuen kopurua aldatu ahal izango da, udal erakundeetako zehaztasun teknikoaren arabera, antolakuntzaren arabera zein eskarien balorazio ostean.

Lea Artibaiko Landagarapenak 30 artisauentzako lekua eskainiko du eurretan salmenta egiteko, aurrez eskaria egin ostean eta Lea Artibaiko Landagarapenaren baimena duenak soilik aukera izanik.

Era berean, produktu motaren arabera baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua aurreikusitakotik beherakoa bada, antolakuntzak eskubidea izango du beste ataletan emandako postuen kopurua handitzeko edo beste produktu tipologia bat barneratzeko edo ezarritako baldintzak betetzen dituzten baina eskaera ezarritako epean aurkeztu ez duten beste produktore eta/edo egile batzuk gonbidatu ahal izateko.

Produktu tipologiaren arabera baldintza berdinetan geratzen diren artisaurik balego, inskripzio data ordenaren arabera erabakiko da nori eman azokarako aukera.

ANIMALIAK

Lea-Artibaiko eta Mallabiko euskal arrazen eta animalien erakusketa ere izango da. Parte hartu nahi duten abeltzainek euren eskari orria aurkeztu beharko dute dagokien dokumentazioarekin eta falta diren arrazen kasuan erakusgai egoteko helburuarekin, euskal animaliak dituzten beste abeltzain batzuk gonbidatu ahal izango dira, azokara hurbiltzen diren bisitariek euskal arrazen ezagutza handitzeko helburuarekin.

Animaliak dakartzatenek dietak jasoko dituzte:

Okelarako behiak:

4 buruko aldra izan behar da gutxienez eta animalia bakoitzak 6 hilabetetik gora izan behar ditu. Kasu honetan, 550€ko dieta jasoko du.

6 hilabetetik gorako 3 buru eta 12 hilabetetik gorako idiskoa ekartzen dituenak dieta handiagoa jasoko du, 620€koa.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste behi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzekoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Lehiaketa egiteko gutxienez arraza bakoitzeko 3 ustiategi apuntatu beharko dira eta irabazleak diren behi edota idiskoak ring-era aterata beharko dira.

Behirik onenari saria 100€koa izango da eta 12 hilabetetik gorako idiskorik onenari saria 100€koa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia, bankuko kontu korrante zenbakia, ustiapen txartelaren eta ustiapeneko jabearen NAN zenbakiaren fotokopiak, karta berdea eskatu ahal izango da. Azoka egunean Jatorri eta Osasun Agiria (Guía de Origen y Sanidad pecuaria) eta urteko analisiak aurkeztu beharko dira.

Idiak:

Aldra bat osatzeko bikotea ekarri beharko da eta 250€ko dieta izango du.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste idi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzekoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Lehiaketa egiteko gutxienez arraza bakoitzeko 3 ustiategi apuntatu beharko dira eta irabazlea den bikotea ring-era aterata beharko da.

Idi bikote onenaren saria 200€koa izango da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia, bankuko kontu korrante zenbakia, ustiapen txartelaren eta ustiapeneko jabearen NAN zenbakiaren fotokopiak, karta berdea eskatu ahal izango da. Azoka egunean Jatorri eta Osasun Agiria (Guía de Origen y Sanidad pecuaria) eta urteko analisiak aurkeztu beharko dira.

Zaldiak:

Aldratzat jotzeko gutxienez 4 buru (3 behor eta zaldi 1) izan behar ditu. Aldrako dieta 300€koa izango da.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste zaldi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Lehiaketa aurkezten diren zaldi ustiategi guztien artean egingo da.

Epaile aditua egongo balitz, berak hartuko luke lehiaketaren puntuazioa egiteko ardura. Epailea ez balitz egongo ondorengoa izango da lehiaketa burutzeko prozedura: Lehiaketako epaimahai apuntatzen diren abeltzainak eurak izango dira. Beraien artean baloratuko dituzte ustiategiak; antolatzaileek baloraziorako txantiloï batzuk prestatuko dituzte irizpide batzuk zehaztuz puntuaketa emateko eta ondoren goiz erdian txantiloïak batuko dira. Abeltzain batek ez badu puntuaketa parte hartu nahi, bere ustiategia lehiaketatik kanpo geratuko da. Antolatzaileek puntuazio zintzoak ez direla susmatzen badu, puntuazioa bertan behera utzi ahal izango dute. Ustiategi bakoitzak ezingo du bere ustiategia puntuatu.

Zaldi ustiategi onenaren saria 200€koa izango da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Abereen banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia, bankuko kontu korronte zenbakia, ustiapen txartelaren eta ustiapeneko jabearen NAN zenbakiaren fotokopiak. Azoka egunean Jatorri eta Osasun Agiria (Guía de Origen y Sanidad pecuaria) eta zaldijendea identifikatzeko liburua.

Ardiak:

Honako hau izan beharko da aurkeztu beharreko aldra: ahari bat, bost ardi, urtebetetik bira bitarteko bost arkasta eta arkasto bat, eta urtebetetik beherako bost arkume eme eta ar bat.

Aldra bakoitzeko dieta 400€koa izango da.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste ardi ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Edozein arrazako ardiak apuntatu ahal izango dira, lehiaketa sasi-ardi eta latxa-ardiekin soilik egingo da.

Lehiaketa egin ahal izateko beharrezkoa izango da sasi-ardi eta latxa-ardi arraza bakoitzeko 3 ustiategi apuntatzea.

Epaile aditua egongo balitz, berak hartuko luke lehiaketaren puntuazioa egiteko ardura. Epailea ez balitz egongo ondorengoa izango da lehiaketa burutzeko prozedura: Lehiaketako epaimahai apuntatzen diren artzainak eurak izango dira. Beraien artean baloratuko dituzte ustiategiak; antolatzaileek baloraziorako txantiloï batzuk prestatuko dituzte irizpide batzuk zehaztuz puntuaketa emateko eta ondoren goiz erdian txantiloïak batuko dira. Artzain batek ez badu puntuaketa parte hartu nahi, bere ustiategia lehiaketatik kanpo geratuko da. Antolatzaileek puntuazio zintzoak ez direla susmatzen badu, puntuazioa bertan behera utzi ahal izango dute. Ustiategi bakoitzak ezingo du bere ustiategia puntuatu.

Sasi-ardi lote onenari saria 100€koa izango da eta ardi-latxa lote onenari saria beste 100€koa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Abereen banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia, bankuko kontu korrante zenbakia, ustiapen txartelaren eta ustiapeneko jabearen NAN zenbakiaren fotokopiak, karta berdea eskatu ahal izango da. Azoka egunean Jatorri eta Osasun Agiria (Guía de Origen y Sanidad pecuaria) eta urteko analisiak aurkeztu beharko dira.

Untxiak:

Lotea osatzeko 4 buru aurkeztu beharko dira.

Loteak 50 €-ko dieta izango du.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste untxi ekarri ahal izango ditu baina dietak eskuratzerako orduan dieta bakarra eskuratuko du.

Ez da lehiaketarik egingo.

Txerria:

Lotea osatzeko 2 txerri aurkeztu beharko dira.

Loteak 150 €-ko dieta izango du.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste txerri ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan lote bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Ez da lehiaketarik egongo

Euskal arrazak:

Euskal arrazen kasuan dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Euskal oilo:

Lotea osatzeko bikotea ekarri beharko da, arraza berbereko oiloa eta oilarra. Ustiategi bakoitzak gutxienez 2 lote ekartzea beharrezkoa izango da parte hartu ahal izateko. Bigarren lotekoak ez dute zertan arraza berberekoak izan.

Lote bakoitzeko 75€ko dieta jasoko du.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste oilo-oilar ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan gehienez 3 lote arraza ezberdini dagokiona jasoko du.

Lehiaketa egoteko beharrezkoa izango da euskal oiloak dakartzaten 3 ustiategi ezberdin ekartzea.

Euskal oiloa arrazako oilar onenari saria 50€koa izango da.

Euskal oiloa arrazako oilo onenari saria 50€koa izango da.

Antzarrak:

Lotea osatzeko bikotea ekarri beharko da.

Lote bakoitzeko 75€ko dieta jasoko du. Abeltzain bakoitzak dieta bakarra eskuratu ahal izango du.

Ez da lehiaketarik egongo.

Hegaztien kasuan, kaiolaren neurriak bere tamainarekiko proportzionalak diren karioletan sartuko dira, honako formula honen arabera:

- *Luzera: hegaztiaren luzera x 2*
- *Altuera: hegaztiaren luzera x 2*
- *Zabalera: hegaztiaren tamaina.*

Euskal astoa:

Lotea osatzeko bikotea ekarri beharko da eta 200€ko dieta izango du.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste asto ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan aldra bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Ez da lehiaketarik egongo.

Euskal txakurra:

Lotea osatzeko bikotea ekarri beharko da. Eta euskal arraza ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Gutxienez, bakoitzak 2 lote ekartzea beharrezkoa izango da.

Lotearen dieta 100€koa izango da.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste txakur ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan lote bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Ez da lehiaketarik egongo.

Ahuntz azpigorriak:

Lotea osatzeko 6 buru ekarri beharko dira, horietako bat arra izango delarik. Euskal arraza ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Aldra bakoitzeko 200€ko dieta jasoko da.

Abeltzain bakoitzak nahi duen beste ahuntz ekarri ahal ditu baina, dietak eskuratzerakoan lote bati dagokiona bakarrik jasoko du.

Ez da lehiaketarik egongo.

Bestelako animaliak ekarri nahi badira, aparteko eskaria egin beharko da eta antolakuntzak hartuko du horren gaineko erabakia.

Osasun Alorra:

Erakusketara aurkezteko aldra guztiek abereen osasunari buruz indarrean dauden arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintzako zerbitzuak eskatzen dituen arauak bete beharko dituzte. Urteko analisiak abeltzain bakoitzak bere kabuz egin behar ditu. Analisi hauen kostea dietaren barruan sartuta dago. Azokarako IBR analisisien kasuan, aldiz, antolakuntzak hartuko ditu beregain, 50 euroraino, hortik gora abeltzainaren kontu izanik. Abereak garbituta ekarri beharko dira. Bestelako betebeharrak sortuko balitz, kasuan kasu aztertuko da.

Garraioa eta bestelako oharrak:

- Abeltzain bakoitzaren esku geldituko da animaliak azoka gunera eramatea, bere kostea dietaren barruan dagoelarik. Garraio hau baimendutako eta erregistratutako ibilgailuetan garraiatu beharko da (ATES).
- Antolakuntza ez da kargu egiten animalari garraioan eta zamaketa lanetan zehar gertatu ahal zaizkion ezbeharren gainean.
- Erakusketan parte hartzen duten behi, idi zein zaldiak soka lotuta egon beharko dira derrigorrez (inoiz ez adarretatik, ez sudur-uztaietatik, ez soka txikiekin,...).
- Kasu guztietan antolatzaileen aldetik baimen berezirik izan ezean, abereak, jendeak ikusi ahal izateko, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:30etara egon beharko dira erakusgai.
- Animaliak arratsaldeko 16:00ak baino arinago jaso behar dira garbiketa lanak gauzatzeko.

Arau hauek ez betetzeak dietak jasotzeko eskubide gabe geratzea ekarriko du, antolatzaileen esku geratzen da dietak eman barik uzteko eskubidea, erabaki honen aurka ez da helegiterik onartuko.

Erakusketatik kanpoko araua:

Abereen erakusketa eta salerosketa egitera hurbildu nahi dutenentzat antolatzaileek gunee bat jarriko dute. Gune honetan parte hartu nahi dutenek Lea Artibai Landa Garapenerako Alkarteari jakinarazi beharko diote. Abere hauek ere, abere osasunari buruz indarrean dauden arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintzako zerbitzuak eskatzen dituen arauak bete beharko dituzte. Albaitarien analisiak eskuragarri izan beharko dituzte edozein momentuan eskatu ahal izango zaizkie eta. Gune honetarako animaliek ez dute dietarik jasoko eta egin beharreko analisiak euren kontura izango dira baita garraioa ere.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Antolatzailearen baimena izatea (eskaria aztertu ostean dagokionari emango zaio).
- Salgai jartzen diren produktuak norberak ekoiztuta izan behar dira.
- Ez da birsalmentarik onartzen.
- Bere jarduera ekonomikoagatik dagozkion jarduera ekonomikoko epigrafean alta emanda egotea eta ordainketetan egunean egotea.
- Gizarte segurantzaren alta emanda egotea eta ordainketetan egunean egotea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera nekazaritzako sailak daukan erroldan alta emanda egotea.

JARDUERA	REGEPA	REGA	RGSEAA	REACAV	RIAA ¹
EKOIZPEN PRIMARIOA					
Landare jatorria	X				
Animalia jatorria		X			
ERAGIKETA LOTUAK²					
Landare jatorria	X				X
Animalia jatorria		X			X
TRANSFORMAZIOA³					
Konbentzionala			X		X
Malgutua ⁴				X	X

(1) Azoka edo feria ekoizpenaren tokiko inguruko eremuan bada, ez da RIAAn inskribatu beharko.

Industria agraria y alimentaria: instalaciones capaces de funcionar como empresa autónoma cuyos productos no sean comercializados exclusivamente al consumidor final ni a mercados de la propia localidad.

(2) Landareak: adib. Ekoizpen lekuan landareak sailkatzea eta ontziratzea (Gida: 23. orria)

Animaliak: adib. Erlezainaren instalazioen barruan ezta ontziratzea

(3) Transformazio jardueraz gain, ekoizleak ekoitzi ere egiten badu, REGAn edo REGEPAn ere egongo da, bietatik dagokionean. (Gida: 25. orria)

(4) EAEko malgutzearen barne badago. (Gida: 50. orria)

- Merkaturatzen dituen produktuen arabera berezko araudiak ezartzen dituen baldintza higieniko sanitarioak eta bestelakoak betetzea.
- Ekimena gauzatzen den egunean salmenta justifikatzen duen agiria jaurtitzeko gaitasuna (salmentako agiria edo tiketa).
- Ontziratutako produktuen kasuan ustiakuntza edo eraldatzeko zentroaren kodearekin identifikatzea.
- Salduko diren produktuak arautzen dituzten baldintza higieniko sanitarioak eta bestelako arauak (mantenimendu, garraio eta manipulatzekoak besteak beste) ezagutu eta betetzen dituela aitortzea bere erantzukizunpean.
- Postuan elikagaiak manipulatz gero, jendeari arreta ematen diotenek dagokion prestakuntza egiaztatzea edo erantzukizunpean adieraztea.
- Aseguru poliza izan beharko da, erantzukizun zibilaren poliza, zeinak era guztietako kontingentziak ta ezbeharrak estali beharko dituen.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela erantzukizunpean adieraztea.
- Autonomo edo mikroenpresa izatea Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz.

IRIZPIDEAK

Ekimen bakoitzak dauzkan ezaugarriak kontuan hartuta produktu ezberdin bakoitzaren saltzaile kopurua mugatua izango da.

Lehentasunak erabakitzeko eta eragileak esleitzeko momentuetarako ondoko irizpideak erabiliko ditu Lea Artibaiko Landagarapenak. Produktu mota baterako puntuazio berdina lortuz gero zozketa bidez esleituko da postua.

Elikagaien salmentarako postuak esleitzerakoan honako alderdi hauek baloratuko dira, bakoitzaren puntuazioarekin, gehienez 22,5 puntu lortu daitezkeelarik:

- Titulu Nagusiko Baserritarra (ATP) izatea: 5 puntu.
- Titularra emakumea izatea: 5 puntu. Sozietateen kasuan emakume kopuruaren proportzioan emango dira puntuak.
- Ingurumenarekiko jasangarritasun irizpideak:
 - Produktuak garraiatzeko ibilgailu elektriko edo hibridoa erabiltzea: 2,5 puntu
 - Jasangarritasuna eta kutsadura ekiditeko helburuarekin, ekimena egingo den puntutik produktuaren jatorria daukan zentrorainoko 1 kmko distantzia bakoitzagatik (beti ere errepide-saretik neurtua): minus puntu 0,1. Gehienez 10 puntu kendu daitezkeelarik
- Elaboratutako salgaien kasuan, nork bere etxaldean sortutako edo ekoiztutako lehengaiak erabiltzeagatik: 5 puntu.
- Elaboratutako salgaien kasuan baimendutako instalazio propioak dauzkaten ustiategiak: 5 puntu.
- Lea Artibaiko Landagarapen Alkarteak azken 12 hilabetetan antolatutako azokaren batean esleitua izan eta, inolako azalpenik gabe eta aurretiaz abisatu gabe, bertaratu ez denak minus 10 puntu izango ditu.

Txosnen esleipenerako 41,5 puntu gehienez lortu ahal izango dira eta ondoko irizpideak izango dira kontutan:

- Emakumea izatea (Sozietateen kasuan emakume kopuruaren proportzioan emango dira puntuak): 5 puntu
- Zertifikatutako produktu ekologikoak: 5 puntu
- Euskal Erkidego Autonomoko kalitateko marka babestuen ekoizleak (Eusko Label, Idiazabal Jatorri Deitura, Bizkaiko Txakolina Jatorri Deitura, Euskal baserri,...): 5 puntu izendapen bakoitzagatik. Gehienez 15 puntu lortu ahal dira.
- Ingurumenarekiko jasangarritasun irizpideak:
 - Produktuak garraiatzeko ibilgailu elektriko edo hibridoa erabiltzea: 2,5 puntu
 - Jasangarritasuna eta kutsadura ekiditeko helburuarekin, ekimena egingo den puntutik produktuaren jatorria daukan zentrorainoko 1 kmko distantzia bakoitzagatik (beti ere errepide-saretik neurtua): minus puntu 0,1. Gehienez 10 puntu kendu daitezkeelarik
- Elaboratutako salgaien kasuan, nork bere etxaldean ekoiztutako lehengaiak erabiltzeagatik: 5 puntu.
- Norbere instalazio propioetan egitea salgai jartzen dituzten produktuak. Honako osasun-erregistro edo botilaratzaile-erregistro hauek baloratuko dira:
 - Haragi manipulaziorako lantegia: 3 puntu. Osasun-erregistroa aurkeztea.

- Errota 3 puntu. Osasun-erregistroa aurkeztea.
- Upeltegia 3 puntu. Osasun-erregistroa eta botilaratzailea aurkeztea.

Kasu guztietan ere, eskatzailea elkarte edo sozietate bat denean bazkide kopurua eta baloratuko den atalaren arteko proportzioan emango dira puntuak.

Artisauen eskariak ez dira puntuaziorik baloratuko, eskarien arabera antolatzaileek hartuko dute erabakia eta lehentasuna izango dute betiko lanbideekin lotura dutenek eta artisautza erregistro ezberdinetan izena emanda daudenak, eskualdeko aurreko azoketako parte hartzearekin batera. Artisauek izen ematerakoan birsalmentarik ez dutela egiten bermatzeko, dokumentazioa grafikoa edo artisau bakoitzak egokiena deritzon euskarria erakutsi beharko du. Produktuen ekoizpeneko prozesuaren argazki edo bideo bidez egin ahal izango da, beti ere, bideoa 15 segundokoa izango da gehienez.

ESKAERAK AURKEZTEA ETA ESLEIPENA

Eskaera www.landagarapenaleaartibai.eus orriaren bidez gauzatu beharko da, azoken atalean Urriko azoka nagusian sartu eta eskatzen den informazioa betez. Horrela ezinezko duenarentzat, jarri harremanetan eta izen emate orriak emailaz helaraziko dira. Dokumentazioa presentzialki aurkezteko aukera ere izango da Lea Artibaiko Landagarapenaren bulegoan (Lea Artibaiko Berrikuntza Gunea, Xemein etorbidea 12. Markina-Xemein helbidean) edo eta kaixo@landagarapenaleaartibai.eus helbide elektronikoan.

Ekoizle, artisau eta txosnen izen emate epea 2026ko uztailaren 20tik 29ra izango da bulegoan 8:30etatik eta 13:30etara bitartean, web orriko izen emate formularioa bidez edo emailaz ere bidali ahal izango da.

Animalien kasuan irailaren 2tik 8ra bitartean izango da bulegoan 8:30etatik 13:30etara bitartean.

Ez dira onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerak.

Eskariak aurkezteko epea amaitzean, eskari guztien azterketa egingo da eta eskumena duen organoak ebatziko du baimena ematea edo ukatzea. Erabaki hau hartzeko antolatzaileak, horrela uste badu, beharrezkoak ikusten dituen txostenak edo eta dokumentuak eskatu ahal izango dizkio egoki irizten dien partehartzaile-gaiei.

Ebazpena egin ostean, eskaria aurkeztu duten interesdunei idatziz erantzungo zaie, baiezkoa zein ezezkoa izan. Lea Artibaiko Landagarapen Alkarteak onartuen azken zerrenda osatzeko azken erabakia du eta parte hartzaileen onarpen eskubidea gordetzen du.

DOKUMENTAZIOA

Elikagaien salmenta:

- www.landagarapenaleaartibai.eus Web orrian, azoken atalean, dagokion azokan agertzen den ekoizleentzat galdetegia betetzea (Ekoizleen eskari orria)
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenaren ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren alta emanda daudenaren ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.
- Osasun erregistroa, hala dagokionean.

- Izen ematean galdetegian, irizpide puntuagarriak diren kasuan, baieztatzen diren puntuen dokumentazioa

Txosnak:

- www.landagarapenaleaartibai.eus Web orrian, azoken atalean, dagokion azokan agertzen den Txosnen galdetegia betetzea (Txosnen eskari orria)
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenaren ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren alta emanda daudenaren ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.
- Osasun erregistroa, hala dagokionean.
- Izen ematean galdetegian, irizpide puntuagarriak diren kasuan, baieztatzen diren puntuen dokumentazioa

Artisauak:

- www.landagarapenaleaartibai.eus Web orrian, azoken atalean, dagokion azokan agertzen den artisauen galdetegia betetzea (Artisauen eskari orria)
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenaren ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren alta emanda daudenaren ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.
- Aintzat hartuko da erregistro-errolda edo artisau txartela edukitzea.
- Osasun erregistroa, hala dagokionean.
- Birsalmentarik ez dela egiten egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa (Norbere argazki edo bideoa artisautza burutzen)

Animaliak:

- Okelarako behiak eta idiak:
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta urteko analisiak
- Zaldiak:
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta zaldijendea identifikatzeko liburua.
- Ardiak:
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta urteko analisiak

- Euskal arrazako animaliak:
 - Euskal abereen ziurtagiria.
 - Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia.
 - Bankuko kontu korrante zenbakia.
 - Ustiapen txartelaren fotokopia
 - Ustiapeneko titularraren NANaren fotokopia.
 - Azoka egunean: Jatorri eta Osasun Agiria eta zaldijendea identifikatzeko liburua.

Erakunde antolatzaileak, oinarrietan agertzen diren baldintzak betetzen dituela edo eta irizpideetan agertzen diren atalak baloratu ahal izateko, beren-beregi ziurtatu ahal izateko edozein dokumentazio gehigarri eskatu ahal izango dio partehartzaileari eta izen emate orrietan edo aurkeztutako dokumentuetan puntuaziorako informazioaren bat falta bada, atal horretarako ez da punturik emango.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Salmenta egiteko baimena jasoko duten pertsonen ondoko eskubideak dauzkate:

- Baimena daukaten postua okupatu
- Baimendutako salmenta gauzatu ahal izan, beti ere ezarritako baldintzen arabera
- Azokaren funtzionamendua hobetzeko egoki deritzen erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu
- Identifikatzeko txartela jaso

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonen ondoko betebeharrak dauzkate:

- Ekoizle bakoitzak bere produktua baino ezin izango du saldu, bere ustiatzean edo baimen sanitarioa daukan establezimendu baten ekoiztutakoak izan behar dute.
- Saltzaile bakoitza produktu motagatik aukeratua izan denez, produktu horiek bakarrik saldu ahal izango ditu.
- Egokitu zaion postua eta espazioa baino ez okupatu.
- Emandako identifikazioaren euskarriak edonork ondo ikusteko moduan edukitzea, bai kontsumitzaile zein udal agintaritzarentzat. Betebehar hau ez betetzeak postuaren altxatzea erakarri dezake eta baita ere, horrela badagokio, zigorra ezartzeko espedientea hastea.
- Momentu guztietan indarrean dagoen araudia errespetatu
- Merkaturatzen diren produktuen informazioa, euren prezioak, eta ekoizleak identifikatzeko kontsumitzaileak behar duen informazioa ondo ikusteko moduan eduki denbora guztian. Produktuen prezioak argi eta errakuntzara ez eramateko moduan egongo dira kartel edo etiketen bidez.
- Saltzaileen ibilgailuak ezarritako lekuetan aparkatuko dira.
- Erreklamazio orriak eskuragarri edukiko dituzte.
- Eskaintzen dituzten produktuak neurtu edo pisatzeko araututako baskula edo neurgailua eduki.
- Hotza eskatzen duten produktuak egokiak diren hozkailuetan gordeko dira.
- Ontziratu gabeko produktuak pantailekin babestu behar dira.
- Ezin dira elikagaiak lurrian eduki.

- Erosleek eskatuz gero salmentako agiria jasotzeko eskubidea daukate (faktura edo tiketa). Bertan ondoko datuak agertuko dira:
 - Datu pertsonalak
 - NAN edo IFK
 - Egoitzaren helbidea
 - Data
 - Produktua
 - Prezioa
 - Kantitatea
- Sortutako hondakinak biltzen joango dira eta salmentako ordutegia amaitzen denean prestatutako puntuetara eramango dira, postua eta bere ingurua txukun itxi beharko ditu.
- Hasteko eta amaitzeko ordutegia errespetatuko da eta bitartean ezin izango da ibilgailurik salmenta esparruan sartu.
- Ekimenak irauten duen artean derrigorrez bete beharko dira begirune, txukuntasun eta garbitasun baldintzak. Saltzen dagoenak garbi egon behar du, baita ere aldean daramatzan arropak eta jarduerarako behar dituen tresnak.
- Produktua zatitzea baimenduta dagoen kasuetan derrigorrezkoa izango da salmenta-puntu horretan edangarria den ura egotea. Aukera dute txorrodun ur-biltegiak, xaboi likidoa eta paperezko zapiak edukitzea.
- Ontziratutako produktuak produzitzen dituzten ekoizle guztiek eduki beharko dute Elikadura Higiene arloko Prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen Norbanako Ziurtagiria eguneratua, ortuari eta fruta kasuak ezean.
- Elikagaiak ondo ordenatuta jarriko dira ikusgai, sailkatuta eta banan, bakotzak bere ezaugarri bereziei eusteko eta usainak, zapora arraroak eta kutsadura ekiditeko
- Azoka amaitzen denean, salmenta-postua eta ingurua garbi eta txukun itxi beharko dute. Zoladurari, arbolei edo jabetza publikoko ondasunei kalteren bat eraginez gero eurek izango dira kalteak konpontzearen erantzule. Horretaz gain, euren jardueraren ondorioz hirugarren bateri edo batzuei kalte edo galeraren bat sortuz gero (pertsonei edo euren ondasunei) kalte edo galera horien erantzule be izango dira. Beraz dagokien erantzun zibileko aseguruia eduki (eta hori horrela dela egiaztatu) beharko dute, zeinak era guztietako kontingentzia eta ezbeharrak estali beharko dituen.
- Etorkizunean indarrean egon daitezkeen araudiak betetzeko betebeharra, nahiz eta araudi honetan jaso barik egon.
- Ekoizpen zentroak ikuskatu ahal izateko erraztasunak eman.
- Edari alkoholodunak adin txikikoei saltzea edo hornitzea erabat debekatuta egongo da. Ildo horretan, edari alkoholodunak salduko diren postu guztietan ikusteko moduan jarri behar dira adin txikikoei edari alkoholodunak saltze debekatuta dagoela adierazten duten kartelak.
- Erreklamazio orriak dituela adierazten duen oharra ikusgai izan beharko dute, baita erreklamazio orriak ere.
- Errespetuz tratatu eta tratatuak izan.

ZIGORTZEKO ERREGIMENA

Antolatzaileek zainduko dute araudi honetan jasotako betebeharrak betetzea.

Bere eskumenen arabera produktuak eta postuak ikuskatu ahal izango ditu eta horiei buruzko informazioa eskatu.

Saltzeko ipintzen diren produktuak osasun edo segurtasunerako arriskua ekarri badezakete, iruzurrekoak badira, faltsuak badira, identifikatu barik badaude edo saltzeko gutxienekoak ez badira betetzen espedientea zabaltzea ekar dezakete eta baita produktuak inkautatzea ere.

Beste entitate eta instituzioek dauzkaten zigortzeko eskumenetatik aparte agirian gelditzen diren faltak zigortu ahal izango ditu, araudi honek ezartzen duenaren arabera.

Indarrean dagoen prozedura administratiboak arautzen du zigorrak ezartzea eta baita errekurtsuak ipintzea ere.

Baimena daukaten titularrak dira bere postua okupatzen duten kideen falta eta arau ez betetzearen erantzuleak.

ARAUAK EZ BETETZEA:

Ez betetzeak arinak eta larriak izan ahal dira.

- Arinak: araudi honetan jasotako baldintzak ez betetzea baina kontsumitzaileentzat kalte ekonomiko edo osasunerako eraginik ez dituztenak.
- Larriak:
 - Arau hauste sanitario larriak eta pertsonen osasuna arriskuan ipintzen dituztenak.
 - Kontsumitzaileei eragin larriak sortzen dizkienak.
 - Ordena ekonomikoa apurtzen dutenak.

ZIGORRAK:

Arau hauste arinak: Abisua edota 1.500 €tarainoko isuna.

Arau hauste larriak: 9.000 €tarainoko isuna edota hurrengo 4 ekimenetan berriro parte hartzeko eskubidea galtzea.

Espedientea ebatzi behar duenak produktuen inkautazioa ere erabaki dezake, faltsuak izateagatik edota identifikazio barik egoteagatik.

KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Parte hartzaile guztiei jakinarazten zaie beraien datu pertsonalak erakunde antolatzaileak tratatuko dituela azoka honetarako eskaera eta partaidetza, eta oinarri hauek onartzeagatik ezarriko den kontratu harremana kudeatzeko, baita erakunde antolatzaileak dituen betebeharrak legalak betetzeko ere. Zure datu pertsonalen tratamenduari edo datu horietara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko duzun eskubideari buruzko informazio gehiago izango duzu eskaerak aurkezteko formularioko klausula espezifikoan.

EZINBESTEKO KAUSAK

Interes publikoko edozein arrazoiengatik, agintari publikoek azoka egitea debekatuko balute, edo azoka egiteko antolatzaileen ustez bideragarriak ez diren baldintzak ezarriko balituzte edo beste kanpo arrazoiengatik azoka bertan behera utzi beharko balitzateke, kode zibilaren 1.105 artikuluan

ezarritakoaren ildotik, parte-hartzaileek ezingo diote inolako zenbatekorik eskatu antolatzaileari merkatua bertan behera geratzeagatik.

AMAIERA

Oinarrien agiri honetan aurreikusi ez diren egoerak edo baldintzak erakunde antolatzailearen irizpideen arabera ebatziko dira eta bere erabakiei ezingo zaie errekurtsorik jarri.